

ARTZAI OIA

Euskaldunontzat artzaia aipagarri eta aintzagarri.

Gizon zintzoaren irudi.

Itza ez jaten arengandik ikasi.

Izarrekin eta lanoekin ameslari.

Ori guztia ia-ia orain arte.

Ume nintzala Andoain'era eta beerago ere udazkeneko otzak asi orduko, artaldeak bitxabalean. mara-mara zetozkigun. Qrain-oraingo eragozpenik gabe, eta gurtarinzaleak ardiei tokia oldez uzten zietela.

An, nere jaioterrian Goiburu'ko Txertota'ra neguoro artzaia biltzen zitzaigun. Orpogorri guztiok pozik! *Ardi ttikia beti bitdots* zala ere azkar ikasi genduan.

Idazteuneko Itun Zar eta Berria'n ere artzaiaren bizitza eta izatea maiz ikusi genezake. Kalegorri eta uri gizatsuetakoentzat ardi eta aari eta bildotx eta arkumeak... izen tximenak. Iza-tekotan ere zikiro okela maiean dutelarik, orduantxe zerbaiti antz-ematen.

Garai aietakoek aberats izatea ere ardien kopurutik ateratzen ziguten.

Iob izeneko gizuren arek ere zazpi milla buru zituan: alegia, ardi asko. (Ikus Iob'en idaztian *I*, 3). Baita, idazteunean irureun aldiz bano geiagotan ardiak ortxe ditugu gezinari bezela. Artaldetsu zan etxea zorioneko. Ontan auxe gogoratzen zait, (alegia: zoriontsu izateari nagokiola): Formosa'ko tayeldarrekin bizi izana naiz, eta aiek gatzaz zuten aberastasunaren iturri. Noski mendi aietan gatzik ez izaten, eta itsasertzean zelai-une eta zingira gutxi, beroietan eguzkiz gezala gatz biurtu al izateko. Orrela gatzaz beste nonbaitetik ekarri bear eta gatz-saltzalleak ikaragarri irabazten: beraz *tximuyao* edo gazlari, orixe aberatsa. Taieldarrek gatzari *tximu* esaten diote. Taieldarren artean, emakume alperrek etxetik irten nai dutenean auxe esaten: *Gatza eroatera noa*: musu bayi tximu. Bafian aldiko pittintxo besterik ez erosten.

Txomin Agirre'k GAROA'n asiera-asieran Joanes Artzaia agertu zigun: gizurenen antzeko. Etxekojaun arduratsu. Izadi-iaintzan txito ezia. Bestalde ere ba-dakigu, euskal-artzaiaik Nevada eta Idaho'ra eraman zituztela: bai Australia'ra ere, eta auxe ere gertatu zitzaidan. Manila'n egazkifiera igo nintzalarik eusko-txapela buruan neraman. Ontzia bete-betea zetorren eta bidazti berria, bakarrik, ni. Laistertxo batean gizaseme gazteak neri: euskotarra al zaitut?

—Euskalduna, nere ustez.

—Neu be alantxe nozu. Muxika'ko semea. Amazortzi urte nebazala Australia'ra etorri nintzan, eta lenengoz oraintxe noia etxera.

—Neu kiputxa naz. Formosa'n urtetxuak dodaz eta lenguxifia be Pilipin'etan dot eta axe ikustera etorri nintzan. Orain Euzkadi'ra noia. Australia'n pozik bizi izan zara, ala?

—Zer esango deusut...

—Irabazi be politto, uste dodanez. Beste endatakoak be izango dozuez.

—Ementxe doazenak be anditxek datoz, Sydney'tik. Oneik guztiak olandarrak dozuz eta berpizte jaietarako aberrira doiaz.

—Asiatarririk ez al dozu ikusi izan?

—Geienbat japonsarrak.

—Langille bizkorak ei dira.

—Australia'ra artzaintzarako'edo deitu. Bafian, bere errian ardirik bein be ikusi barik ezebe ezin egin. Bafian, dirua bil-tzeko eta sal-erosketarako gogo aundia dabe. Goseak eta ega-riak ibiliko iatzuz. Alan da be egunero diru-pillatxua aurrera-tuko dabe. Gero, besteai irabazi latzean emoteko. Olangorik!!!!

Izan ere, artzai-bizitza ez eroso. Agian, udan bai zelai za-baletan naiz mendiegaletan bazka aukeran dutenean. Neguan, ordea, buru-belarri ardientzak iatekoa bildu bear.

«... egunez naiz gabez ostutakoen kontuak be neuri eskatzen eustazan, eta loak artu ezinik egoten nintzan» erantzun zion Iakob'ek bere nagusi Laban'i. (Asiera idazteian 31, 40: Kere-xeta'ren itzulpenez.)

«... neure aitaren ardiak zaitzen dodaz; eta leoi edo artz ba-tek, etorririk, artaldeko ardi bat ba'daroa, aren atzean urtenda, makilaka jo eta kendu egiten dautsat ardia agotik; eta, neure aurka biurtzen ba'da, ari okozpetik elduta, joka ilten dot.» (1 Sam. 17, 34-35: Kerexeta'rena).

Oraindik orain ere, Palestina'ko lurretan Iesukristo'k Artzai Ona'ren alegian adirazten diguna ikusi liteke.

«Ni naiz artzai ona. Artzai onak bere bizia ematen du ardien aide. Jornalekoa danak, artzai ez denak, ardiak bereak ez di-tuenak, otsoa datorrela ikustean, ardiak utzi ta ihes egiten du, ta otsoak arrapa ta sakail egiten ditu ardiak; jornalekoa bai da, ez bait zaio ari ardien axolik. (Ion 10, 11-13. Olariaga-ren itzulpenez).

Iesukristo Ber-berak bere gezna azalez eta mamiz zertsu izango zan adirazi bear zigunean izentzat ARTZAI ONA au-keratu zigun. Ain argi eta egoki, ordea!! Izenaren xumea! Itza-ren garbia! Izanaren ezitia. Geznaren betea. Onginaiaren aun-

dia. Maitasarrearen beroa. Inongo olerkari iaioenak egin ezin zukeana eta egingo ez zuena, gure Erosleak izen egokia artuz egin digu.

Are! Geznaren sakon eta mamia, alegiaren axial meeak oraindik ere erdizka bezelaxe erakusten.

Lurreko artzaien alegifiik bikafienak eta ardurarik sutsuenak Iesukristo'ren guganako maitasunean, itzak kaxkar besterik ez ditugu. Artzai Ona'ren izana eta giarra beste esan onek osatzen eta zuzenenik ematen: «... nere bizia ematen dut nere ardien aide... nere gogoz ematen dut.» (Ion 10, 15... eta 18. Olariaga'rena).

Besteak, mausari eta alpertzar —agintari okerrak, iragarle zuriak, irakasle likitsak, adiskide billauak— beti beren irizkeriak besterik ontzat artzen ez zutenak, orixe! ebasle eta ifio-renaren zale izan dira eta ditugu; ardiek aiek bazkatu eta inutu, beraz? Ederki eman ere! Eguneroko lanetan ez zuten beste zer-eginik!!

Bakarrik, beren buruak gizendu eta beren etxea aberaskeriz bete muturrerano, eta mandioak zabaldu... «Auxe egingo dot: nire garaitegiak lurrera bota, beste aundiago batzuk jaso eta antxe batuko dodaz nire gari ta ondasun guztiak; eta, nire arimeari auxe esango dausat: Arima! ondasun asko daukazuz batuta urte askotarako. Atsedean artu, jan, edan, oparo bizi.» (Luk 12, 18-19: Kerexeta'rena).

Artzai onak ardie: izenez deitzen. Banan ainbeste izen nondik aterako? Bai! Onako oni *ixuri* esango. Beste orri *beltx*. Aldamenekoari *begi-nabar*. Urrengoari *adar-motx*. Errukarriari *maite*. Ezergatik gizontzen ez danari *anka-me*... Eta, guztientzat xaki berexia, eskubiko belarriaren ertzean; xulo ttiki-ttikia. Beti bere oriekin dabillega, guztientzat alakoxe nai aundia sortzen zaio.

Ortxe, 1947-garren urteko udaberriz, Palestina'n artzai gazte bik ardiak galdu. Len ere beste orrenbeste gertatu zitzaizela, eta ango malkarrak arakatzen asi. Beroa bero, eta egarria egarri

mutil biak abittu ziran. Ibili eta ibili ezer ez ageri. Mendi legorrak eta zelai zakarrak zapaldu. Ezertxoren aztarnik ez. Guztia bertan bera utzi? Ez orixe! Ez genituzke artzai on izango.

Antxe malkarrean, Itsaso Illa'ri begira alakoxe egontokiak zeudela iduritu zitzaien. Tontorretik nolabait jetxi eta antzifiako ontziak antxe sallean. Ez zuten asko uste.

Oso zarrak zirana garbi zekusaten. Ontzi aietako bati buruko estalkia kendu eta barruan aspaldiko larrutxak biribil-biribil.

Irian asko zekitenak ba-zirala, eta aurkikizunak Betlem'era eramán zituzten. An puxka zar biltzalleak izan eta bi aiei aiek isilpekoak erosi, eta azkenean lau larrutxa Syriarren Aitalen eta Mar Atanasi Iexue Samuel zeritzanak eskuetaratu. Ondoren ikasien artean naspila ere sortu zan, geroago arazoa guztia iakintsuen mende geraturik.

Artzai bi aiei, beren-berena zuten lanak ies egin zien, eta aientzat ain egoki ez zan ariketa sortu zitzaien. Tartean, irabazi al izatea etorri arren, txoratuunik zergatik? Gizonak izan, eta gizonkeriak egin.

Artzai bi aiek arkitu zituztenak, geroago ere zarlariek aurkituko zituztela? Ala ere artzai-izatea gorestekeo afieko lanak egin zizkiguten.

Etxeberria'tar P. s. j.

Ilo-Ilo: 1980.X.23